FILMAZPIT

**M.I.A. (2018) eta ORION: THE MAN WHO WOULD BE KING (2015)**
**filmak eskuragarri Filmazpit katalogoan**

Steve Loveridge da **Matangi / Maya / M.I.A.** (2018) dokumentalaren zuzendaria eta bertan, Matangi Arulpragasm, lagunentzat Maya eta nazioartean M.I.A. bezala ezagutzen den lagun-minaren bizitza eta bilakaera artistikoaren argazkia egiten du. Bestalde, Jeanie Finlay dokumentalgileak Jimmy Ellis, Elvis berpiztu eta maskaratu bezala ospea lortu zuen abeslari ezezagunaren historia dakar **Orion: The Man Who Would Be King** (2015) filmean.

**Matangi / Maya / M.I.A.** (2018) dokumentala ezin gauzatu izango zen Loveridge eta Maya-ren arteko laguntasunik gabe. Bikotea St. Martin's College-ean (Londres) ezagutu zen arte ikasketak egiten zituen bitartean. Maya pop izar bezala ezagutzen dutenentzat une txundigarriak gordetzen ditu dokumentalak; kamerara zuzenean egiten dituen adierazpenak, askotan etsaitasunezko giro batean etorkin eta txiroak izaten ari diren gorakadaren inguruko eztabaida argia, hogei urterekin Sri Lankara egin bidaia bere familiarekin eta herentzia politikoarekin elkartzeko edota Justine Frischman eta Elastica taldearekin izandako harremana 90eko hamarkadaren amaieran. M.I.A.k indar ikaragarria izan du musikan azken hamarkadetan baina jendaurreko agerraldi ugari nahiz izaera irekia dituen arren, misteriotsua izaten jarraitzen du. Horretxegatik da harritzekoa Steve Loveridge lagunari dokumental bat egiten uztea bere artxibategi pertsonala erabilita gainera, Mayak bere bizitzan zehar grabatu duen altxor paregabea.

**Orion: The Man Who Would Be King** (2015) dokumentalak Jimmy Ellis-en historia kontatzen du, Presley handiarena izan zitekeen ahotsarekin jaio eta Gail Brewer Giorgio-ren *Orion* liburutik ateratako identitate faltsuarekin hazi zen artistarena. Elvis Presley-ren heriotzaren ondorengo hilabeteetan diseinatutako plan zoro baten barruan egin zuen ospera jauzia "Elvis bizirik dago" mitoa hasi berri zela eta desiratu zuen fama lortu zuen, baita nahi izan zituen emakume guztiak eta jendetzaren mirespena ere. Baina hura guztia ez zen nahikoa. Finlay-k zuzentzen duen dokumentalak musikaren industriaren estrategia ezkutuak azaleratzen ditu, fantasiarekiko miresmena eta identitatearen bilaketa amaigabea. **Orion**-ek fikzioa errealitatea baino harrigarriagoa dela erakusten du eta dokumentalak historiaren historia kontatzen du. Nor zen maskaratutako gizon hura?

**Matangi / Maya / M.I.A.** honako jaialdietan egon da besteak beste: 2018 Sundance: Epaimahaiaren Sari Berezia Premio; Berlinale 2018; IndieLisboa IFF 2018: Indiemusic Scheweppes Saria; In-Edit 2018 Bartzelona eta Madril. **Orion: The Man Who Would Be King** bere aldetik, Dock of the Bay 2016 eta In-Edit Bartzelona 2015 jaialdietan ikusi da eta 2015 British Independent Film Awards (BIFA): Discovery Saria irabazi du.

Lan hauek gehitu ondoren, Filmazpit katalogoak jatorrizko bertsioan eta publiko zabal bati zuzendutako kalitatezko film sorta ederra jartzen du interesa duten programatzaile eta eragile kulturalen eskura, kosturik gabe proiekzioak antolatu ditzaten. Filma guztiak jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpitituluekin eskaintzen dira. Filmazpit, Eusko Jaurlaritzak finantzatu eta Donostia Zinemaldia eta Euskadiko Filmategiarekin batera Donostia Kulturak 2011 urtetik kudeatzen duen euskarazko azpitituludun zinema zabaltzeko programa da.

Programaren informazio osoa, filmen katalogoa eta kontaktua [www.filmazpit.eus](http://www.filmazpit.eus) webgunean.

Kudeatzaileak:

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | donostia kultura | ZINEUSKADI

Laguntzaileak:

SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival | EUSKADIKO FILMATEGIA FILMOTECA VASCA

FILMAZPIT

**M.I.A. (2018) y ORION: THE MAN WHO WOULD BE KING (2015)**
**ahora disponibles en el catálogo Filmazpit**

Steve Loveridge es el director del documental **Matangi** / **Maya** / **M.I.A.** (2018), que retrata la vida y devenir artístico de su íntima amiga Matangi Arulpragasm, Maya para sus amigos y M.I.A., la superestrella internacional, para el resto del mundo. Por otro lado, la documentalista Jeanie Finlay relata en **Orion: The Man Who Would Be King** (2015) la historia de Jimmy Ellis, un cantante anónimo lanzado a la fama como el resucitado y enmascarado Elvis.

El documental **Matangi** / **Maya** / **M.I.A.** (2018) no podría haber sido posible sin la amistad entre Loveridge y Maya, que se conocieron siendo estudiantes de arte en St. Martin's College (Londres). Para los que solo conocen a Maya como la estrella del pop, hay muchos momentos asombrosos que pueden encontrarse en este documental: sus declaraciones directas a la cámara, su discusión sobre el crecimiento de inmigrantes y pobres en un ambiente a veces hostil, su viaje con veinte años a Sri Lanka para reencontrarse con su familia y la herencia política del país, o su encuentro con Justine Frischman y su banda Elastica a finales de los noventa. M.I.A. ha tenido una gran fuerza en la música desde hace décadas pero, a pesar de su presencia pública y su naturaleza extrovertida, sigue siendo un enigma. Es por ello que resulta tan sorprenderte que permitiera a su amigo Steve Loveridge hacer un documental sobre ella y usando su archivo personal, un tesoro increíble grabado por Maya a lo largo de su vida.

**Orion: The Man Who Would Be King** (2015) cuenta la historia de Jimmy Ellis, un cantante que nació con una voz que parecía la hermana gemela de la de Presley y con una extravagante identidad ficticia arrancada de las páginas de la novela *Orion*, de Gail Brewer Giorgio. Lanzado a la fama dentro de un plan alocado que fue diseñado meses después de la muerte de Presley cuando el mito de "Elvis está vivo" acababa de comenzar, Ellis obtuvo la fama que siempre anheló, las mujeres que deseó y la adoración de las masas. Pero aquello no era suficiente. El documental dirigido por Finlay desvela las estrategias manipuladoras de la industria de la música, la fascinación por la fantasía y la eterna búsqueda de la identidad. **Orion** demuestra que la realidad supera a la ficción y este documental cuenta la historia detrás de la historia. ¿Quién era ese hombre enmascarado?

**Matangi** / **Maya** / **M.I.A.** ha participado entre otros en los siguientes festivales: 2018 Festival de Sundance: Premio Especial del Jurado; Berlinale 2018; IndieLisboa IFF 2018: Premio Indiemusic Scheweppes; In-Edit 2018 Barcelona y Madrid. **Orion: The Man Who Would Be King** por su parte se ha paseado por el Dock of the Bay 2016; In-Edit Barcelona 2015; y ha ganado el 2015 British Independent Film Awards (BIFA): Premio Discovery.

Tras estas nuevas incorporaciones al programa, el catálogo de Filmazpit cuenta con una colección de películas en versión original, de calidad y dirigidas a un público amplio para que aquellos programadores y agentes culturales interesados puedan organizar proyecciones sin coste alguno. Todas las películas del catálogo están en versión original con subtítulos en euskera. Filmazpit es una iniciativa financiada por el Gobierno Vasco y que con la colaboración del Festival de Cine de San Sebastián y Filmoteca Vasca gestiona Donostia Kultura desde 2011 con el objetivo de difundir el cine con subtítulos en euskera.

Toda la información sobre el programa, el catálogo de películas así como el contacto en **www.filmazpit.eus**.